



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 12a

61. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, Europako gainerako kideekin ados jarrita, ekoizidua nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jardun iraunkorreko programa bat landu dezan, Foru Komunitateko ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten pertsoneri. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du programa bat diseina dezan, Osasun Publikoaren Institutuaren bidez, gazteentzako osasun-aktiboaren mapak prestatzea errazteko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu 0-3 plataformaren erreibindikazioak eta 0-3 zikloa hezkuntza izaerarekin duintzearen alde egiten du. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Europaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (6. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzea (6. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoa (8. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, Europako gainerako kideekin ados jarrita, ekozidua nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko apirilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, ekozidua nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Erromako Estatutuaren aldaketa bultzatzeko politika bat azter dezan, Europako gainerako kideekin ados jarrita, ekozidua nazioarteko delitu gisa aitortzeko bide modura eta, halaber, balora dezan xede horrekin bat datozen gure barne zuzenbidearen aldaketa prozesalak eta penalak egiteko aukera”.

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun iraunkorreko programa bat landu dezan, Foru Komunitateko ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko apirilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jardun iraunkorreko programa bat landu dezan, Foru Komunitateko ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

– Jardun iraunkorreko programa bat lantzea, Nafarroako ospitale publikoetan kultur ekintzak egitekoa, ongizate emozionalarentzat neurri onuragarriak diren aldetik.

– Jarduera kulturalen plan bat prestatzea, bereziki Nafarroako ospitaletako pediatria unitateetan ingresatuta dauden haurrei zuzenduak.

– Ospitale eta osasun arloko guneak jarduketa artistikoekin gaitzea, gune gizatiarragoak eta beharrian emozionaleri egokituagoak izan daitezzen.

– Oinarrizko Osasun Laguntzatik “errezeta kulturala” ezartzea, jendearen oreka eta osasun mentala errazteko tresna gisa.

– 2022. urtea bukatu aitzin Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko du osasun alorreko ekintza kultural eta artistikoei buruzko plan bat. Plan honek definituko du pro-

gramazioa eta jardueren plana, ospitale eta osasun arloko guneak prestatuko ditu eta Oinarrizko Osasun Laguntzan “errezeta kulturala” ezarriko du”.

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten pertsoneri.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko apirilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten pertsoneri”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gehienez ere hiru hilabeteko epean laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten eta barne gaixotasunen tratamendurako edo beren autonomia eta bizi kalitatea hobetzeko behar duten osasun arloko teknologian egin behar izaten duten gastua beren poltsikotik ordaindu behar duten pertsoneri”.

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat diseina dezan, Osasun Publikoaren Institutuaren bidez, gazteentzako osasun-aktiboen mapak prestatzea errazteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko apirilaren 28an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat diseina dezan, Osasun Publikoaren Institutuaren bidez, gazteentzako osasun-aktiboen mapak prestatzea errazteko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Osasun Publikoaren Institutuaren bidez programa bat diseinatzea gazteentzako osasun-aktiboen mapak prestatzea errazteko.

2. Nafarroako Gazteriaren Institutuari helaraztea programa hori garatzeko beharko duten laguntza tekniko eta profesionala.

3. Toki entitateekin lankidetzan aritzea herri bakoitzean tresna horiek garatu ahal izateko.

4. Sistemaren beraren mapak prestatzea: hezkuntza, osasuna, gizarte kontuak, berdintasuna... osasuna indartzeko gaitasun hori politikak sendotzeko.

5. Konpromisoa hartzea atzematen diren osasun arloko aktiboak garatzeko proposamenak sustatu eta garatzeko".

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko apirilaren 28an egindako bilkuran, ezetsi du gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan Nafarroako Gobernua premiatzen duen mozioa, zeina Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu baitzuen eta 2022ko apiri-

laren 26ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu 0-3 plataformaren erreibindikazioak eta 0-3 zikloa hezkuntza izaerarekin duintzearen alde egiten du.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko apirilaren 28an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu 0-3 plataformaren erreibindikazioak eta 0-3 zikloa hezkuntza izaerarekin duintzearen alde egiten du". Mozioa Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamen-

tarioek, eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten eta 2022ko apirilaren 26ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Europaren Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Europaren Eguna dela-eta maiatzaren 9an izan diren ospakizunekin.

2. Nafarroako Parlamentuak beharrezkoa jotzen du ekimen eta ekintza politikoak eta herritarrenak sustatzea eta bultzatzea 2022-Gazteriaren Europako Urtean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du gazteen ikuspegia sartzeari buruzko Europako finantzatutako inbertsioetan, Nafarroako gazteriarri pairatzen dituen problematika kronikoak desagerarazte aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du gazteen parte-hartzerako bideak sortu eta susta ditzan. Bide horiek demokrazia parte-hartzaileago baten eta erakunde irisgarriagoen alde egiten dute, gazteriarri garrantzi handiko zeregina esleituz, Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziatik (COFOE) ateratako ondorioen haritik.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du –eta horretarako konpromisoa hartzen du– Nafarroako gazteen artean Europaren aldeko sentimendua sendotzeko eta Nafarroako herritarrek Europako erakundeak hobeto ezagutzeko ekimenak eta jarduerak susta ditzan". (10-22/DEC-00023).

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzeko epea **2022ko maia-**

tzaren 19ko eguerdiko 17:30ak arte luzatzea. (10-22/ELC-00004).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legeak aipatutako bulegoa zuzenbide publikoko entitate gisa sortu eta arautzen du. Nortasun juridiko berekia izanen du eta, bere eskumenak betetzean, objektibotasunez eta profesionaltasunez jardunen du, antolamendu juridikoari men eginez eta administrazio publikoengandiko erabateko independentzia organiko eta funtzionalarekin.

Aipaturiko Foru Legearen 33. artikulua xedatzen du Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria Nafarroako Foru Parlamentuko lehendakariak izendatuko duela Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak gehiengo osoz hautatu ondoren.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du aurreikusten hautapen horretarako arau berriazkorik. Hori dela eta, Erregelamenduaren 37.1.Bederatzigarrena artikuluekin bat, Mahaiak

eta Eledunen Batzarrak aipatu izendapena egiteko arauak onetsi behar dituzte.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.bederatzigarrena artikuluan xedatutakoaren babesean, hona ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria hautatzeko prozesua hasia (10-22/ELC-00005).

Bigarrena. Aipatu hautapena egiteko arauak onestea. Hona arau horiek:

1. Nafarroako Parlamentuak izendatuko du Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendaria, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legearen arabera.

2. Hautagaiak hautatuko dira beren eskubide zibil eta politikoaren gaineko erabilpen erabatekoa

duten eta karguan jarduteko behar diren egokitasun-, sustraitze-, zintzotasun- eta profesionaltasun-baldintzak betetzen dituzten adin nagusiko herritarren artetik. Goi mailako unibertsitate titularen jabe izan beharko du eta hamar urte baino gehiagoko lan-jarduera edo jarduera profesionala eduki, bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duena. Halaber, nafartasun politikoa izan behar du.

Zuzendaria ezin izanen da afiliatuta egon inolako alderdi politiko, sindikatu edo elkarte profesional edo enpresa-elkartetan. Bateriaezinak dira kargua eta beste ordezkaritza-kargu, kargu politiko edo administrazio-eginkizun oro, lanbide-, merkataritza- edo lan-jarduera oro, bai eta zuzendaritza- edo aholkularitza-kargu oro ere.

Zuzendariak eginkizun horretarako arduraldi eskusiboa izanen du eta kargu publikoen bateraezintasunei buruzko araubidearen mende egonen da.

3. Kargurako hautagaiak talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak edo beren jarduera Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten gizarte-erakundeek proposatuko dizkiote Nafarroako Parlamentuari.

4. Hautagaitzak Legebiltzarreko Mahaiari igorritako idazki baten bidez aurkeztu beharko dira. Idazki horretan jaso beharko dira proposatutako hautagaiaren onarpena eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta

ustelkeriaren kontrako bulegoko zuzendari izateko betekizun legalak betetzen dituelako eta bateraezintasun kausarik ez dagoelako aitortpenak.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 19an bukatuko da, 17:30ean.

6. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak kalifikatuko du ea proposatutako hautagaiak betetzen ote dituzten eskaturiko baldintzak, eta jarraian, kasua bada, hautagaitzak aldarrikatuko ditu.

7. Hautaketa Legebiltzarraren Osoko Bilkuran egingen da, isilpeko bozketaren bidez.

8. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak hautagai bakarraren izena bakarrik jarri ahalko du txartelean.

9. Mahaiak boto-kontaketa egin eta botoen gehiengo osoa lortzen duen hautagaia hautatu dela aldarrikatuko du.

10. Aipatu gehiengoa lortzen ez bada, bozketa errepikatuko da, eta bigarren bozketa honetan hautagai bakar batek ere ez badu gehiengo osoa lortzen, prozedura bukatutzat eman eta prozesu berri bat hasi beharko da.

Hirugarrena. Arau hauek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2022ko maiatzaren 4ko erabakiaren bidez, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoa igorri dio Nafarroako Parlamentuari, honek iritzia eman dezan.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduaren 202. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako plan estrategikoa izapidetzeko onartzea (10-22/CDP-00006).

2. Xedatzea hari buruzko erabakia Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Batzordeak hartuko duela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Oharra: Aipatu plana Nafarroako Parlamentuaren webgunean kontsultatu daiteke:

<https://www.parlamentodenavarra.es/es/contenido/documentos>